Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko uztailaren 10a, ostirala — 129 — Viernes, a 10 de julio de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## OÑATIKO UDALA

*Karrerako funtzionario bat izendatzeko ebazpena, Udaltzaingoaren Ofizialorde (C1) bat kontratatzeko deialdiaren baitan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2023ko apirilaren 20an argitaratu zena (75. zk.) eta 2023ABAP0001 espediente-zenbakiari lotuta.*

Alkateak 2026ko ekainaren 29an honako dekretu hau eman duela jakinarazi da (1285. zk.):

2022ko abenduaren 14ko 1389 Alkate-dekretu bidez 2022. urteko Lan Eskaintza Publikoa onartu eta 2022ko abenduaren 30eko 247. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean) argitaratu zen.

Prozesu horren baitan, 2023ko apirilaren 20an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (75. zk.) Ofizialorde bat barne-sustapenez izendatzeko hautaketa-prozesua arautuko zuten oinarriak. Bi hutsen zuzenketa ere argitaratu ziren gerora: lehenengoa 2023ko ekainaren 19an (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 117. zk.) eta bigarrena 2023ko uztailaren 27an (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 145. zk.).

Oñatiko Udaleko Ofizial Ordea barne-sustapenez izendatzeko epaimahaiak onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda ebatzi zuen 2023ko abenduaren 22ko 1607 alkate-dekretuak eta 2023ko abenduaren 28ko 248. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean egin zen publiko.

Epaimahai kalifikatzaileak onartutako kalifikazioen eta merezimenduen behin betiko balorazioaren hurrenkera jarraituta, hurrengo izangaia kontratatzea proposatu du.

Epaimahaiak Idoia Lazpita Bengoa proposatu du deialdiaren xede den lanpostua karrerako funtzionario gisa betetzeko, zegokion praktikaldia gainditu ondoren.

Aurrekoa kontuan hartuta,

EBATZI DUT

*Lehenengoa.* Epaimahaiak egindako proposamena eta hautagaiak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, Idoia Lazpita Bengoa izendatzea Udaltzaingoaren Ofizialorde lanpostua karrerako funtzionario gisa betetzeko.

*Bigarrena.* Karguaz jabetzen denetik aurrera izango du eragina, izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

*Hirugarrena.* Ebazpen hau interesdunari eta Pertsonaleko Departamentuari jakinaraztea. Era berean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean argitaratzea.

Oñati, 2026ko ekainaren 29a.—Izaro Elorza Arregui, alkatea.
(4439)

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Resolución de nombramiento como funcionaria de carrera en la convocatoria para la contratación de una plaza de Suboficial de la Policía Local (C1), publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 20 de abril de 2023 (n.º 75), correspondiente al expediente 2023ABAP0001.*

Se comunica que el 29 de junio de 2026 la alcaldesa ha emitido el siguiente Decreto (n.º 1285):

Por Decreto de Alcaldía de 14 de diciembre de 2022, se aprobó la Oferta de Empleo Público correspondiente al año 2022, la cual fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 247, de 30 de diciembre de 2022.

En el marco de dicha Oferta de Empleo Público, el 20 de abril de 2023 se publicaron en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (n.º 75) las bases reguladoras del proceso selectivo para la provisión, mediante promoción interna, de una plaza de Suboficial de la Policía Local. Posteriormente se publicaron dos subsanaciones de errores: la primera el 19 de junio de 2023 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 117), y la segunda el 27 de julio de 2023 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 145).

Mediante Decreto de Alcaldía n.º 1607, de 22 de diciembre de 2023, se aprobó la relación definitiva de personas aspirantes admitidas y excluidas por el tribunal en el proceso selectivo para la provisión, mediante promoción interna, de la plaza de Suboficial de la Policía Local del Ayuntamiento de Oñati, publicándose dicho acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 248, de 28 de diciembre de 2023.

Siguiendo la valoración definitiva de las calificaciones y los méritos aprobada por el Tribunal Calificador, se propone la contratación de la siguiente aspirante.

El tribunal ha propuesto a Idoia Lazpita Bengoa para la provisión como funcionaria de carrera del puesto objeto de la convocatoria, tras la superación del correspondiente periodo de prácticas.

Teniendo en cuenta lo anterior,

HE RESUELTO

*Primero.* Nombrar, a la vista de la propuesta elevada por el Tribunal y de la documentación aportada por la candidata, a Idoia Lazpita Bengoa para desempeñar el puesto de Suboficial de la Policía Local como funcionaria de carrera.

*Segundo.* El nombramiento surtirá efecto desde la toma de posesión, que se efectuará dentro del plazo de un mes desde el día siguiente a la publicación de su nombramiento en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Tercero.* Notificar la presente resolución al interesado y al Departamento de Personal. Asimismo, publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web municipal.

Oñati, a 29 de junio de 2026.—La alcaldesa, Izaro Elorza Arregui.
(4439)

EK\CV GAO-I-2026-04439